

DIRU-ITURRIAK

Gure diru-iturri bakarra Vitaldent enpresatik etorriko da, akordio baten bidez, produktua zuzenean haiei saltzen diegulako, bezeroetan banaka sartu gabe. Guk, produktua ekoizten dugu, eta produktuaren % 100 Vitaldent enpresara iristen da. Interesen arabera jasoko dugu benifizioa, kontratuan adostu genuen bezala. Vitaldentekin sakontzen, gaur egun, enpresa honek 400 klinika baino gehiago ditu Espainian, 8 milioi paziente baino gehiago tratatu ditu eta 3.500 profesionalek eta 2.000 dentista laguntzailek osatutako talde handi bat du. Beraiekin kolaboratzea epe luzerako inbertsio handia izango dela bermatzen dugu.

Azaldutako moduan, Vitaldent diru sarreraren 100% da, hau da irabazi guztiak Vitaldent enpresatik etortzen dira kontratu handi baten bidez. Etorkizunari begira, enpresa independente bat bezala, hainbat enpresarekin lankidetzan arituko garela ziurta dezakegu, proiektu hau epe luzera zabaltzeko eta irabaziak handitzeko. Hortaz, urte batzuk pasata diru sarrerak dibersifikatu ahal izango dira.

Hasteko, inbertsiorako diru kantitate handi bat behar da, inbertitzaile batek edo hainbatek laguntza behar baititugu produktua banatzeko, publizitatea egiteko eta ekoizteko. Era berean, azpimarratu behar da irabaziak inbertsioak baino askoz handiagoak izatea espero dugula gure kalkulak egin eta gero.

Hasiera batean Vitaldent enpresak 20.000 unitate erosiko digute gure produktua merkatuan funtzionatzen duen frogatzeko. Mekanismo bakoitzak sortzea 30 euro balio du, aurrerago egindako dokumentuetan esan dugun moduan, beraz hasieran (20.000 x 30) 600.000 euro behar izango ditugu. Mekanismo bakoitzaren prezioa kalkulatzeko kontuan izan dugu erabilitako materialak, makinak, energia kontuan hartuz. Baina horretaz aparte, manufaktura kobratu behar dugu ere, oso konplexua izan delako sorketaren prozesua eta produktu finalera ailegatu arte azterketa eta ikerketa asko egin ditugulako.